

tzea da. Teologiaren arabera, benetako zorion betea ez datza hainbat ondasun, material nahiz izpiritual, lortzean, eta bai Ongoren eta ondasun guztien Iturburuarekin bat egitean. Hori, berriz, erabat eta betirako beste bizitzan gerta daitekeela uste du kristau-fedeak. Ik. Betiko bizitza; Ikuspen dohatsua; Zerua.

Gauza bera adierazten du txinerazko fu karaktereak: betekuntza, osotasuna, erabatekotasuna. *Konfuzianismoaren ustez, *bertutearen fruitua da zoriona. Daoisten sinestez, berriz, *Dao-gan aurki daiteke benetako zoriona.

Zorionbideak

Sin.: Zoriontasunak

Jesukristok mendi gaineko predikuan arranditsu jaulkitako zortzi bedeikapen-atsoitzak, Itun Zaharreko hainbat esaera laburtzen dituztenak eta behartsuei, otzanei, atsekabetuei, zuzentasun-zaleei, errukior edo urrikaritsuei, bihozgarbiei, bagegileei eta erasopean daudenei Jainkoaren Erreinua eta zoriona agintzen dizkienak. Kristauaren ebanjelio-goiburua edo ideala horietxek ipintzen bide dute; *maitasunean burutzen da hori.

Mateoren ebanjelioak 5. kapituluak, eta Lukarenak 6. ean jasotzen dituzte zorionbideak.

Ik. Mendigaineko predikua; Etika eta erlijioa; Jainkoaren erreinua; Doha(tsu)tasuna.

Zorionekoa

Ik. Dohatsua, 1.

Zoriontasunak

Ik. Zorionbideak.

Zoriontsua

Ik. Dohatsua, 1.

Zoroastrismoa

Antzinako Pertiako erlijioa, Zoroastro edo Zarathustra profetak eratuak. Eratzailearengatik deritza zoroastrismoa.

K.a. VI. mendean bizi izan zen Zoroastro. Erlijio berriaren eratzailatzat baino gehiago antzinako iraniar erlijio tradizionalaren --*mazdeismoaren-- eraberritzailetzat eta sistematikotzailetzat hartu behar da. Horregatik sarritan mazdeismoa esaten da, besterik gabe.

Zoroastrismoaren idazteunari *Avesta deritza. Horren parterik nagusia, Gatha-k

alegia, Zoroastroren beraren irakatsitzat jotzen dute.

Ahura Mazda da jainkoetako gorena, bi-ziaren jauna eta materiaren egilea. Izpirituz edo "santu hilezkorrez" inguraturik dago, eta horien bitartez agertzen ditu bere jainkotasunak.

Mundua, berriz, elkarren kontrako bi izpiritu jatorrikook gidatzen dute: ongiaren eta gaizkiaren izpirituek, alegia. Ahura Mazda ongiaren izpirituarekin berdintzen da sarritan.

Dualismo kosmiko horrek bere oihartzuna du gizon-emakumeen jokabide etikoan ere: ongiaren ala gaizkiaren aldeko hautua egin beharra daukate bizitzan zehar gizon-emakumeek. Erlijio etikoa da batez ere mazdeismo/zoroastrismoa. Ik. Etika eta erlijioa.

Horren arabera, gizon-emakumeen azken xedea betiko zoriona ala betiko oinazea izango da.

Zoroastrismoaren gorabehera historikoak handiak izan dira. Alexandro Handiaren garaian ia itzalita egon ondoren, gero berbizitu egin zen, geroago Iran-go erlijio ofizial bihurtzeraino. Baina *islamismoaren eraso ia desagertu egin zen Iranen. Eta gaur Indiako *parsiarrek jarraitzen dute bereziki.

Eragin handia eduki du mazdeismo/zoroastrismoak historian zehar: *Judaismoan --eta horren bidez, *kristautasunean--, *manikeismoan, *gnostizismoan, etab.

Ik. Erlijioa eta erlijioak; Dualismoa; Ongia eta gaizkia.

Paulo Agirrebaltzategi

Zoroastro

Beronen jatorrizko izena Zarathustra da; mendebaldera Zoroastro bezala igaro da. K.a. VI. mendean Pertiaren bizi izandako erlijio tradizionalaren eraberritzailea.

Beraren erlijio-sistemari *mazdeismoa edo *zoroastrismoa deritza. Beraren irakatsiak Avesta-n bildu zituzten.

Sarritan zalantzan jarri izan dute Zoroastroren historikotasuna; baina gaur egiaztatutzat ematen dute.

Ik. Zend; Avesta.

Zoroen jaialdia

Erdi Aroan kristauen artean ospatzen zuten festa herritarra, antzinako erromatarren *saturnalen edo Saturnoren omenezko festaren antzera. Abenduak ospatzen zuten; jolas handiak izaten ziren: horien artean